



HIPI AIXERROTA:

Bem vinda Aixerrrotara!

Ongi etorri Aixerrrotara!

¡Benvenida Aixerrrotara!

Ласкаво просимо Aixerrrotara!

Benvenue Aixerrrotara!

Welcome Aixerrrotara!

Aixerrota BHIko ikasle atzerritarrentzat eta
beren euskarako irakasleentzat sortutako ikasmateriala

Aurkibidea

LANAREN JUSTIFIKAZIOA.....	3
MATERIALA NOLA ERABILI.....	4
Pertsonak ezagutzen.....	4
Ikastetxean.....	7
Nahiak eta beharrak.....	11
Zer moduz?	15
WEBGRAFIA	20
ERABILITAKO WEBGUNEAK.....	20
ARGAZKIEN ESTEKAK.....	20
ENTZUNGAIK.....	24
Kaixo! Nor zara zu?.....	24
Nongoa zara?.....	24
Nolako naiz?	25
Non dago?.....	25
Zer gustatzen zaizu?.....	25
Zergatik?.....	25
LAN HONETARAKO ESTEKA.....	26

LANAREN JUSTIFIKAZIOA

Aixerrota BHI HIPI programarik ez da martxan jartzen normalean, nahiz eta noizean behin atzerriko ikasleak bertaratzen diren; programa horretaz baliatzeko ikasle-kopuruaren azpitik ibiltzea izaten da arrazoia. Hortaz, euskal hezkuntza-sisteman ikasle sartu berriei harrera egin eta haien inklusioari laguntzeko programarik ez dagoenez, zaila egiten zaio euskarako irakasleari ikasle horiei hizkuntzaren gaitasun linguistikoak eta komunikatiboak eskuratzen laguntzea.

Batetik, Euskarako irakasleak ikasgelako gainerako ikasleekin egin beharreko lana dela eta, ezin izaten die ikasle etorri berriei behar besteko arreta eskaini. Bestetik, HIPI programako irakasleek erabiltzen dituzten material didaktikoak une oro irakaslearen gidaz lantzekoak direnez, Aixerrotan nekez landu daitezke; izan ere, ez dute ahalbidetzen gure ikasleek bakarka eroso lan egitea. Beraz, bertaratzen diren ikasleak luze egoten dira ikasgelan zereginik gabe, ez dutelako gaitasun nahikoa ikasgelan lantzen den ezer ulertzeko.

Ikasmaterial honen xedea hau da: euskaraz oinarritzko gaitasun komunikatiboa lortu ahal izateko, Aixerrotako ikasle atzerritarrek nolabaiteko autonomiarekin ikasgelan lan egiten jardutea Euskarako irakaslearen gutxieneko gidatze-lanarekin. Irakaslea ikasleekin arituko da saio hasieran hiru minutu, egunean egin beharrekoa zehazteko, eta saio-barruan noizean behin, unean uneko zalantzaren bat argitzeko. Bestalde, Aixerrota BHI ikastetxeak arlo honetarako ikas-materiala ondo antolatuta edukitzea ere bada helburua, Euskarako irakasleari lana errazteko, beti material bila ibili barik. Horretarako guztirako, ikus-entzunezko edukia gainerako edukiarekin uztartzeko, Google Site aplikazioa aukeratu da; orri digitaletan antolatutako egitura duenez, euskarri aproposa delakoan gaude eduki horiek guztiak ondo antolatuta edukitzeko.

HUPI Aixerrota Site-a egiteko, <http://hipibaliabideak.wordpress.com> webguneko materiala hartu da kontuan. Bertako testuliburuaren edukien ordena orokorrari eutsi zaio, testuak aldatuta eta ikus-entzunezko materiala txertatuta. Ikas-egoerak orri digitaletan daude antolatuta, ikasleek urratsez urrats eta eroso lan egin dezaten. Gainera, Google-en Classroom aplikazioa erabiliko da ikasle-irakasle harremanetarako zein lanak aurkeztu eta zuzentzeko.

Ikasmaterial honen jardueretako enuntziatuak sei hizkuntzatan daude, ordena honetan: euskara, gaztelania, frantsesa, portugesa, ukrainera eta ingelesa. Urtetan izandako eskarmentuari esker, ikusi da sei hizkuntza horiek izan direla lagungarrienak bertaratu diren ikasleentzat; hala ere, jakina, aukera dago nahi beste hizkuntzatarara egokitzeko. Ikastetxe honetako baldintzetan, nahitaezkoa da ikasleek harik eta autonomia handienarekin lan egitea eta irakaslearen laguntza txikiena behar izatea. Atzerriko ikasleekin lan egiteko erabili izan diren testuliburuetan falta hori sumatu delako gehitu dira enuntziatuok.

HUPI Aixerrotako orri digitalak ordena jakin batean antolatu dira, urratsez urrats lantzeko. Orri bakoitza testuinguru edo ikas-egoera jakin bati dagokio, eta ikasleak testuinguru horretako hizkuntza-gaitasunak lortzea da helburua hurrengo orrira pasatzeko. Horretarako, orri edo testuinguru bakoitzaren amaieran, beti egongo da ikasleak ahoz zein idatziz sortu beharreko zeregin nagusi bat. Google-en Classroom aplikazioaren bidez partekatuko ditu lan horiek irakaslearekin.

Denboralizazioari dagokionez, ikas-material hau kanpotik etorritako DBHko ikasleek A1 maila lortzeko dago pentsatuta. Hau lau unitatez osaturiko lagin bat da, bi hiruhilekoko lana betetzera datorrena. Bertan, mota askotako jarduerak daude, hizkuntza-trebetasun guztiak lantze aldera: aplikazio-jarduerak, irakurriaren ulermenari zein ahozko ulermenari dagozkionak; baita ahozko zein idatzizko adierazpena lantzekoak ere.

MATERIALA NOLA ERABILI

Pertsonak ezagutzen

1. Pertsonak ezagutzen	
JUSTIFIKAZIOA	Ikas-egoera honen helburua da ikasle etorri berriek gainerako ikaskideekin harremanetan hasteko baliabideak lortzea.
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none">- Eguneroko harremanetan agurtzeak duen garrantziari buruzko gogoeta egitea.- Agurtzeko ekintza hitzetatik haratago doala konturatzea eta elementu paralinguistikoek (keinuek, intonazioak...) mezuan duten eragina aintzat hartzea.- Agur egitean norberaren ohiturak aztertzea eta, beharrezkoa irudituz gero, aldatzea.- Hizkuntza-aniztasunak, agurtzeko moduei begira, eskolan duen isla azaleratzea eta positiboki balioestea.- Ingurukoen jatorriaz eta adinaz ohartzea, elkarrenganako interesa sortzeko, lagunak egiten haste aldera.
AMAIERAKO ZEREGINA	Elkarrizketa bat sortzea eta grabatzea: hasiera eta amaierako agurrak erabilia, ikaskide bat agurtzeko eta nongoa den, non bizi den eta zenbat urte dituen galdetzeko.
IRAUPENA	13 saio. Molda daiteke, ikaslearen beharren arabera.
OINARRIZKO JAKINTZAK	<ul style="list-style-type: none">- Aurkezpen-formulak- <i>Izan</i> aditza- Agurren intonazioa- <i>Nongo</i> deklinabide-kasua- <i>Bizi izan</i> aditza- <i>Non</i> deklinabide-kasua- Kardinalak eta ordinalak- Oinarrizko izen arruntak- Oinarrizko izenondoak- Informazioa itzultzeko estrategiak- Ahozko testuak sortzeko, ulertzeko, grabatzeko eta bidaltzeko estrategiak

JARDUERAK

1.1. Kaixo! Nor zara zu?

- Galdetu ikaskide bati.
- Ikasi buruz *izan* aditza.
- Itzuli zure hizkuntzara. *Izan* aditza.
- Agur egiteko formulak. Itzuli zure hizkuntzara.
- Agurtu eta galdetu izena ikaskide bati. Grabatu eta bidali irakasleari.

1.2. Nongoa zara?

- Bete elkarrizketa.
- Bete taula.
- Galdetu edo erantzun. Bete elkarrizketak.

1.3. Non bizi zara?

- *Bizi izan* aditza.
- Egin zurea. Bete hutsuneak.

1.4. Zenbat urte dituzu?

- Itzuli elkarrizketa zure hizkuntzara.
- *Ukan* aditza. Itzuli taula zure hizkuntzara.
- Zenbakiak. Bete taula.
- Lotu zenbakiak eta letrak.
- Bete taula. Idatzizko zenbakiak.
- Erantzun galderari.
- Sartu Esanbaki jolasean eta egin *Zenbakiak* atala.
- Sortu eta grabatu elkarrizketa baten gidoia.

1.5. Nolakoa naiz?

- Itzuli zure hizkuntzara. Oinarrizko izen arruntak.
- Itzuli zure hizkuntzara. Oinarrizko izenondoak.
- Egin zurea. Bete fitxa zure datuekin.
- Nolakoa da? Bete taula.
- Bete taula. Beste pertsona bat aurkeztu.
- Deskribatu honako lagun hauek.
- Orain, deskribatu zure lagun bat.
- Entzun eta marraztu. *Nolakoa da Mikel?*

	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Zenbat urte dituzu?</i> atalean (4. atala) gidoi bat sortu duzu. Orain, gehitu gidoi horri lagun baten aurkezpena eta, gero, grabatu. • Grabatu elkarrizketa. Gero, bidali irakasleari
PROZEDURA	<ol style="list-style-type: none"> 1. saioa: Irakurri <i>Kaixo! Nor zara zu?</i> ataleko elkarrizketa. Gero, entzun eta kopiatu testua Google.doc batean. Azkenik, bete hutsuneak eta bidali irakasleari. Ondoren, bete <i>izan</i> aditzaren itzulpen-aula eta bidali irakasleari. 2. saioa: Ikasi <i>izan</i> aditza eta erakutsi ikasi duzula irakasleari. Bete agurren itzulpen-aula eta bidali irakasleari. 3. saioa: Sortu elkarrizketa bat ikaskide bat agurtzeko eta izena galdetzeko. Erabili hasierako eta amaierako agurrak. Grabatu eta bidali irakasleari. 4. saioa: Bete Manuelaren eta lkerren arteko elkarrizketak. Gero, bete <i>Nongoa da Chelo?</i> taula. 5. saioa: Bete <i>Galdetu edo erantzun</i> elkarrizketa laburrak. 6. saioa: Lehenik, itzuli <i>Zenbat urte dituzu?</i> zure hizkuntzara; gero, itzuli <i>ukan</i> aditzaren taula ere. 7. saioa: Bete zenbakien taulak, <i>Non bizi dira?</i> jarduera, lotu zenbakiak letrekin eta erantzun <i>Zenbat urte dituzu zuk?</i> galderari. 8. saioa: Sartu Hitziki.com webgunean eta egin osorik Esanbaki jolasaren zenbakien atala. 9. saioa: Sortu elkarrizketa baten gidoa, gero grabatzeko: agurtu ikaskide bat, galdetu nongoa den eta zenbat urte dituen. Erabili hasierako eta amaierako agurrak. 10. saioa: Bete <i>Nolakoa naiz?</i> izen arrunten eta izenondoen taulak (5. atala), hitzak itzuliz. Gero, bete zure fitxa emandako bi ereduaren arabera.

	<p>11. saioa:</p> <p>Bete irudien taulak izenondoekin. Ondoren, bete Arkaitzen fitxa. Azkenik, deskribatu lau argazkiak.</p> <p>12. saioa:</p> <p>Egin lagun baten deskribapena. Entzun <i>Nolako da Mikel?</i> entzungaia, eta marraztu irudia.</p> <p>13. saioa:</p> <p>Gehitu lagun baten aurkezpena 4. atalean egindako gidoiari. Gero grabatu eta bidali irakasleari.</p>
--	--

Ikastetxean

2. Ikastetxean	
JUSTIFIKAZIOA	Gure ikasleen habitata da ikastetxea: eguneroko bizitzako oso eremu garrantzitsua. Ikas-egoera honetan, xedea ikasleak ikastetxeko oinarrizko esapideak ulertzea eta erabiltzea da, bertako bizimoduan moldatzeko.
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxeko eguneroko bizitzan berehalako beharrak asetzeko esaldi soilak osatzea. - Ikastetxeko eguneroko bizitzan sarri erabiltzen diren esapideak ulertzea eta erabiltzea. - Oinarrizko informazioa ematea eta eskatzea norberaren gauzei buruz eta ezagutzen duen jendeari buruz. - Gelako errutinei jarraitzea. - Ezagunak diren izenak, gauzak eta ekintzak identifikatzea.
AMAIERAKO ZEREGINA	Deskribapen bat ahoz egitea eta grabatzea, norberaren ikastetxea nolako den eta bertan zer egiten duen adierazteko.
IRAUPENA	14 saio. Molda daiteke, ikaslearen beharren arabera.
OINARRIZKO JAKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> - Eskolarekin lotutako izen arruntak - Oinarrizko izenondoak - <i>Egon</i> aditza - Lekuzko aditzondoak - <i>Noren</i> deklinabide-kasua - <i>Non</i> deklinabide-kasua - Ikasgelako ohiko hainbat esapide

	<ul style="list-style-type: none"> - Deskribapenaren egitura - Aditzaren aspektua: burutua, burutugabea eta etorkizuneko. - Oinarrizko hainbat aditz - <i>Ukan</i> aditza - Egutegiaren gaineko lexikoa - <i>Norekin</i> deklinabide-kasua - Mezu elektronikoaren egitura - Informazioa itzultzeko estrategiak - Ahozko testua sortzeko, ulertzeko, grabatzeko eta bidaltzeko estrategiak
<p>JARDUERAK</p>	<p>2.1. Ikastetxea ezagutzen</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxeko gauzak. • Sartu <i>Hitzikin</i> eta egin <i>Eskolan</i> atala. • Itzuli zure hizkuntzara. • Sartu <i>Esanbakin</i> eta egin <i>Koloreak</i> atala. • Bete hutsuneak. • Ikastetxeko lekuak. • <i>Egon</i> aditza. Itzuli zure hizkuntzara. Ikasi buruz. <p>2.2. Non dago?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bete hutsuneak (barruan, gainean...). • Bete hutsuneak (noren ondoan). • Bete hutsuneak (sagar, kutxa). • Bete hutsuneak (zeren artean). • Itzuli zure hizkuntzara (hesi, harri, etxe). • Erantzun galderei (hemen, hor, han). • Itzuli zure hizkuntzara (behi, zuhaitz, zeru). • Itzuli zure hizkuntzara (bide, mendi, ostadar). • Erantzun galderei (ezkerrean, eskuinean). • Erantzun galderei (non). • Entzun eta esan egia ala faltsua den. • Aukeratu zuzena.

	<ul style="list-style-type: none"> • Kontuan hartu eredu hau zure ikasgelaren deskribapena idazteko. Gero, bidali irakasleari. <p>2.3. Jolastokian jolasten</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sartu <i>Esanbakin</i> eta egin <i>Aditzak</i> atala. • Itzuli zure hizkuntzara (jolastu, kirola egin, txiza egin, irakurri, musika egin, ikasi, bazkaldu, ordenagailuan ibili, igo, jaitsi, ibili, fotokopiak atera). • Bete hutsuneak. • Itzuli zure hizkuntzara (utzi). • Bete hutsuneak. <p>2.4. Astea, hilabeteak eta urtaroak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Itzuli zure hizkuntzara (asteko egunak). • Itzuli zure hizkuntzara (urtaroak eta hilabeteak). • Itzuli zure hizkuntzara (goiz, arratsalde). • Begiratu zure ordutegian eta erantzun. • Itzuli zure hizkuntzara (atzo, gaur, bihar, etzi). • Kokatu laukiko hitzak esaldietan. • Bete hutsuneak (norekin). • Idatzi mezu elektronikoa bat zure irakasleari ikastetxean zer dagoen eta zer egiten duzun kontatzeko. • Egin ahoz deskribapen bat eta grabatu, zure ikastetxea nolakoa den eta bertan zer egiten duzun adierazteko. Gero, bidali irakasleari.
<p>PROZEDURA</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. saioa: Ikasi <i>Ikastetxeko gauzak</i> taula. Gero, Sartu <i>Hitzikin</i> eta egin <i>Eskolan</i> atala. 2. saioa: Itzuli zure hizkuntzara. Sartu <i>Esanbakin</i> eta egin <i>Koloreak</i> atala. 3. saioa: Bete hutsuneak. Ikastetxeko lekuak ikasi. 4. saioa:

	<p>Itzuli zure hizkuntzara (<i>egon</i> aditza). Ikasi buruz. Bete hutsuneak.</p> <p>5. saioa:</p> <p>Bete hutsuneak (<i>noren ondoan</i>). Itzuli zure hizkuntzara (sagar, kutxa). Bete hutsuneak (-en artean). Itzuli zure hizkuntzara (hesi, harri, etxe). Erantzun galderei (hemen, hor, han).</p> <p>6. saioa:</p> <p>Itzuli zure hizkuntzara (mendi, bide, ortzadar). Erantzun galderei (ezkerrean, eskuinean). Erantzun galderak (non dago liburua?...). Entzun eta esan egia ala faltsua diren.</p> <p>7. saioa:</p> <p>Aukeratu zuzena. Kontuan hartu eredu hau zure ikasgelaren deskribapena idazteko. Gero, bidali irakasleari.</p> <p>8. saioa:</p> <p>Sartu Esanbakin eta egin Aditzak atalean.</p> <p>9. saioa:</p> <p>Itzuli zure hizkuntzara (ikastetxeko lekuak). Bete hutsuneak (izan vs ukan).</p> <p>10. saioa:</p> <p>Itzuli zure hizkuntzara (kutxatiletan utzi). Bete hutsuneak. Itzuli zure hizkuntzara (asteko egunak). Itzuli zure hizkuntzara (urtaroak eta hilabeteak).</p> <p>11. saioa:</p> <p>Itzuli zure hizkuntzara (goiz, arratsalde). Begiratu zure ordutegian eta erantzun. Itzuli zure hizkuntzara (atzo, gaur, bihar, etzi).</p> <p>12. saioa:</p> <p>Irakurri arretaz aditz aspektuaren taula. Kokatu laukiko hitzak esaldietan. Bete hutsuneak (norekin).</p> <p>13. saioa:</p> <p>Idatzi mezu elektronikoa bat zure irakasleari ikastetxean zer dagoen eta zer egiten duzun kontatzeko.</p> <p>14. saioa:</p>
--	--

	Egin ahoz deskribapen bat eta grabatu, zure ikastetxea nolakoa den eta bertan zer egiten duzun adierazteko. Gero, bidali irakasleari.
--	---

Nahiak eta beharrak

3. Nahiak eta beharrak	
JUSTIFIKAZIOA	Ikas-egoera honen bidez, ikasleek berehalako beharrak asetzeko esaldi soilak sortuko dituzte; gainera, eguneroko bizitzan sarri erabiltzen diren esapideak ulertu eta erabiliko dituzte.
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxeko eguneroko bizitzan, berehalako beharrak asetzeko esaldi soilak osatzea. - Ikastetxeko eguneroko bizitzan sarri erabiltzen diren esapideak ulertzea eta erabiltzea. - Instrukzio eta agindu sinpleei jarraitzea; era berean, instrukzio sinpleak sortzea. - Interesak eta gustuak adieraztea. - Ezagunak diren izenak, gauzak eta ekintzak identifikatzea. - Oinarrizko informazioa ematea eta eskatzea norberaren gauzei buruz eta ezagutzen duen jendeari buruz.
AMAIERAKO ZEREGINA	Errezeta bat irudi bidez eta ahoz azaltzea.
IRAUPENA	9 saio. Molda daiteke, ikaslearen beharren arabera.
OINARRIZKO JAKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Nahi izan</i> eta <i>behar izan</i> aditzak - Eguneroko bizitzako oinarrizko lexikoa, gogoaren, beharraren eta gustuen gainekoa. - <i>Ukan</i> aditzarekin komunztadura singularra eta plurala. - Helburuzko esaldiak: <i>zertarako</i>. - <i>Zerik</i> deklinabide-kasua. - Ezezko esaldiak. - <i>Gustatu</i> aditza.

	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Nor-nori</i> aditz laguntzailea. - <i>Nor-nori</i> aditz laguntzailearekin komunztadura singularra eta plurala. - Errezeta baten egitura. - Errezetarako oinarritzko testu-antolatzaile batzuk. - <i>Nori</i> deklinabide-kasua.
<p>JARDUERAK</p>	<p>3.1. Nahi izan / Behar izan</p> <ul style="list-style-type: none"> • Itzuli zure hizkuntzara (umea, esnea, lehoia...). • Itzuli zure hizkuntzara (egarri izan, gose izan...). • Bete taula (nahi dut vs nahi ditut). • Bete taula (ez dut nahi vs ez ditut nahi). • Bete taulak (<i>Zer behar duzu? Zertarako? / Zer ez duzu behar? Zertarako?</i>). • Bete taula (<i>Utziko didazu?</i>). • Bete hutsuneak (<i>Zer nahi duzu zure urtebetetzean?</i>). • Bete hutsuneak (<i>Zer behar duzu hau egiteko?</i>). • Itzuli zure hizkuntzara (iltze, botoi). • Bete hutsuneak (<i>zerik</i>). <p>3.2. Zer gustatzen zaizu?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Itzuli zure hizkuntzara (mikatz, garratz...). • Bete hutsuneak (<i>gustatzen zait vs. ez zait gustatzen</i>). • Bete hutsuneak (gustatzen zaizkit vs. ez zaizkit gustatzen). • Sartu <i>Hitzikin</i> eta egin <i>Txikisuper</i> atala. • Bete hutsuneak (<i>Zein da zure arlorik gustukoena? / Zein ez da zure arlorik gustukoena?</i>).

	<ul style="list-style-type: none"> • Sartu <i>Esanbakin</i> eta egin <i>Bizigabeak</i> atala. • Jarri zenbakia taulari begiratuta; gero, amaitu esaldiak. • Itzuli zure hizkuntzara (ozpin, entsalada...). • Bete hutsuneak (<i>niri gustatzen zait / niri ez zait gustatzen</i>). • Begiratu hiztegian errezetako aditzak eta azpiko denborazko lokailuak; gero, berridatzi errezeta azpiko lokailuak erabilia. • Bete taula (<i>nori</i>). • Entzun errezetaren eredua eta bilatu hiztegian ulertzen ez dituzun hitzak. • Errezeta egiteko urratsak: <ol style="list-style-type: none"> 1. Aukeratu platera. 2. Egin gidoia. Erabili denborazko lokailuak (lehenengo, ondoren, gero, jarraian, azkenik). 3. Kozinatu errezeta etxean, atera argazkiak prozesuari eta prestatu irudi bidezko aurkezpena. 4. Prestatu errezetaren ahozko azalpena, ondoren grabatzeko. 5. Grabatu ahozko aurkezpena eta bidali irakasleari irudi bidezko aurkezpenarekin batera.
<p>PROZEDURA</p>	<p>1. saioa:</p> <p>Aztertu <i>nahi izan</i> eta <i>behar izan</i> aditzen taula. Itzuli zure hizkuntzara (umea, esnea, lehoia...). Aztertu taula (umeak esnea nahi du...)</p> <p>2. saioa:</p> <p>Itzuli zure hizkuntzara (egarri izan...). Bete taula (nahi dut vs nahi ditut). Bete taulak (<i>Zer behar duzu? Zertarako? / Zer ez zuzu behar? Zertarako?</i>).</p> <p>3. saioa:</p>

Bete taula (Utziko didazu?). Bete hutsuneak (Zer nahi duzu zure urtebetetzean?). Bete hutsuneak (Zer behar duzu hau egiteko?). Itzuli zure hizkuntzara (iltze, botoi). Bete hutsuneak (zerik).

4. saioa:

Aztertu eta ikasi jakien taula. Aztertu eta ikasi *gustatu* aditza. Itzuli zure hizkuntzara (mikatz, garratz...). Bete hutsuneak (gustatzen zait vs. ez zait gustatzen). Bete hutsuneak (gustatzen zaizkit vs. ez zaizkit gustatzen).

5. saioa:

Sartu *Hitzikin* eta egin *Txikisuper* atala.

6. saioa:

Bete hutsuneak (Zein da zure arlorik gustukoena? / Zein ez da zure arlorik gustukoena). Sartu *Esanbakin* eta egin *Bizigabeak* atala.

7. saioa:

Jarri zenbakia taulari begiratuta; gero, amaitu esaldiak. Itzuli zure hizkuntzara (ozpin, entsalada...). Bete hutsuneak (niri gustatzen zait / niri ez zait gustatzen). Begiratu hiztegia errezetako aditzak eta azpiko denborazko lokailuak; gero, berridatzi errezeta azpiko lokailuak erabilita.

8. saioa:

Bete taula (nori). Entzun errezetaren eredua eta bilatu hiztegia ulertzen ez dituzun hitzak.

9. saioa:

Errezeta egiteko urratsak:

1. Aukeratu platera.

2. Egin gidoia. Erabili denborazko lokailuak (lehenengo, ondoren, gero, jarraian, azkenik).

Zer

moduz?

	<p>3. Kozinatu errezeta etxean, atera argazkiak prozesuari eta prestatu irudi bidezko aurkezpena.</p> <p>4. Prestatu errezetaren ahozko azalpena, ondoren grabatzeko.</p>
	<p>4. Zer moduz?</p> <p>5. Grabatu ahozko aurkezpena eta bidali</p>
JUSTIFIKAZIOA	<p>Nerabeen irudi bidezko aurkezpenarekin batera, ikasleek ari diren buruzko oinarriko gaitan, sentimenduek pisu nabarmena daukate, are gehiago, ikasle etorri berrien kasuan, bizitzan aldaketa handia izan berri dutelako eta lagungarria zaielako lagunekin bizipenak partekatzea. Beharra izaten dute beren egoera gainerakoei ulertarazteko eta kideengandik gertu egoteko. Horregatik, ikasleek euren sentimenduak adierazten eta arrazoitzen ikasiko dute ikas-egoera honetan.</p>
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none">- Ikasleak bere sentimenduei buruzko oinarriko informazioa ematea eta eskatzea.- Ikastetxeko eguneroko bizitzan sarri erabiltzen diren esapideak ulertzea eta erabiltzea.- Norberari buruzko nahiz eskola inguruneko gai ezagunei buruzko galdera errazak ulertzea: "Zer ari zara egiten?", "Nola zaude?", "Zergatik etorri zara berandu?"...- Ezagunak diren izenak, gauzak eta ekintzak identifikatzea.- Elkarriketetan oso ohiko adierazpenak erabiltzea: "Bai", "Ez", "Gustatzen zait", "Primeran!".- Gai ezagunei buruzko mezu laburrak ulertzea: agurrak, informazio laburrak ("Bihar zinemara joango gara").- Informazio-testu simple baten ideia orokorra ulertzea edo deskripzio laburrak eta errazak egitea ikusizko euskarrien laguntzarekin.- Informazio pertsonalari buruzko esaldi labur eta errazak dituzten testuak idaztea: ".....esaten dut eta ... nago..... ari naiz".- Bere mailari dagozkion lanak era autonomoan egitea.
AMAIERAKO ZEREGINA	<p>Eguneroko bat egitea, ahoz nahiz idatziz norbere sentimenduak adierazi eta arrazoitzeko.</p>
IRAUPENA	<p>18 saio. Molda daiteke, ikaslearen beharren arabera.</p>
OINARRIZKO JAKINTZAK	<ul style="list-style-type: none">- Oinarrizko moduzko aditzondoak (primeran, ondo, oso txarto...).

	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Eduki</i> aditza. - Lexikoa: buruko eta gorputzeko atalak. - <i>Nongo mina</i> <i>eduki</i> egitura. - Lexikoa: gaixotasunei buruzkoa. - Lekuzko aditzondoak (gainean, azpian...). - Moduzko aditzondoak (emozioak). - <i>Nola</i> galdetzailearen erabilera. - Zertan ari izan. - <i>Ze pozik nagoen!</i> harridurazko perpausa. - <i>-(e)lako</i> kausazkoa. - <i>Zergatik</i> galdetzailea. - Dataren adierazpena eguneroko batean. - Eguneroko baten egitura.
<p>JARDUERAK</p>	<p>4.1. Zer moduz zaude?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasi <i>eduki</i> aditza. • Ikasi buruko atalak. • <i>Nolakoa zara?</i> Idatzi nolakoa den zure aurpegia. • Bilatu buruko atalak. • Ikasi gorputzeko atalak. • Itzuli zure hizkuntzara. • Irakurri testua eta erantzun galderi. • Itzuli zure hizkuntzara. • Erantzun galderi. <p>4.2. Nola zaude?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bete hutsuneak (emozioak).

	<ul style="list-style-type: none"> • Bete taula. • Bete taula. <i>Nola zaude?</i> • Osatu esaldiak taulako informazioarekin. • Bete taula. <i>Nola zaude?</i> <p>4.3 Zertan ari zara?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bete taula. Gero, esan, grabatu eta bidali irakasleari. • Bete taula. Gero, esan ahots goraz, grabatu eta bidali irakasleari. • Sartu <i>Esanbakin</i> eta egin <i>Esaldiak</i> atala. • Osatu esaldiak taulako informazioarekin. • Galdetu lagunei eta osatu taula. • Itzuli zure hizkuntzara. • Irakurri testua eta erantzun galderei. <p>4.4 Zergatik?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bete taula kausazkoa erabilita. • Hautatu aukera zuzena eta egin kausazko esaldia. • Entzun <i>Iratiren egunerokoa</i> entzungaia eta erantzun galderei. • Idatzi zure egunerokoa aurreko taularen eredia erabilita. Bete hiru taula aste honetako hiru egunekin. • Grabatu zure egunerokoaren entzungaia, Iratik bezala; gero, bidali irakasleari.
PROZEDURA	1. saioa:

	<p>Entseatu elkarrizketa laburra irakaslearekin edo kide batekin, eta zer moduz dagoen galdetu eta erantzun. Gero, ikasi <i>eduki</i> aditza.</p> <p>2. saioa:</p> <p>Ikasi buruko atalak. Ondoren, idatzi nolakoa den zure aurpegia.</p> <p>3. saioa:</p> <p>Bilatu buruko atalak (letra-zopa).</p> <p>4. saioa:</p> <p>Ikasi gorputzeko atalak. Gero, seinalatu atal bakoitza atzamarrarekin eta esan irakasleari.</p> <p>5. saioa:</p> <p>Ikasi <i>Nongo mina daukazu?</i> egitura. Gero, irakurri testua, itzuli zure hizkuntzara testuko hitzak eta erantzun galderei.</p> <p>6. saioa:</p> <p>Itzuli zure hizkuntzara (<i>marranta...</i>). Erantzun galderei.</p> <p>7. saioa:</p> <p>Ikasi emozioak. Gero, bete hutsuneak eta bete taula.</p> <p>8. saioa:</p> <p>Bete taula (<i>nola zaude?</i>). Osatu esaldiak taulako informazioarekin. Bete taula (<i>eskolan zaude...</i>).</p> <p>9. saioa:</p> <p>Ikasi <i>zertan ari zara</i> egitura; gero, bete taula, eta, azkenik, esan, grabatu eta bidali irakasleari.</p> <p>10. saioa:</p>
--	---

Bete taula (*belauniko*). Gero, esan, grabatu eta bidali irakasleari.

11. saioa:

Sartu *Esanbakin* eta egin *Esaldiak* atala.

12. saioa:

Ikasi *ze pozik nagoen!* egitura. Osatu esaldiak taulako informazioarekin. Galdetu lagunei eta osatu taula.

13. saioa:

Irakurri *Ainhoa eta Jai* testua. Gero, itzuli hitzak zure hizkuntzara. Erantzun galderei.

14. saioa:

Ikasi *-(e)lako* kausazko atzizkia. Gero, bete taula.

15. saioa:

Hautatu aukera zuzena eta osatu esaldia kausazko atzizkia erabilita.

16. saioa:

Entzun *Irati*ren *egunerokoa* entzungaia eta erantzun galderei.

17. saioa:

Idatzi zure egunerokoa aurreko taularen eredia erabilita. Bete hiru taula aste honetako hiru egunekin.

18. saioa:

Grabatu zure egunerokoaren entzungaia, Iratik bezala; gero, bidali irakasleari.

WEBGRAFIA

ERABILITAKO WEBGUNEAK

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila (2003). Ikasle etorkinak artatzeko programa. [Artikulua, linean]. [Kontsulta:2023-10-14]. Eskuragarri, hemen:

- https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjunt

Lezo Herri Eskola. Euskara ikasten ari gara (2018). [Liburua, linean]. [Kontsulta:2023-10-14]. Eskuragarri, hemen:

- <https://drive.google.com/drive/folders/1RhN2LM9T9I2FzurDiHo9Is7nr-L8FuYM>

Kulturarteko hezkuntza lantaldea DURANGOKO BERRITZEGUNEA (2007). Nire lehen koaderno euskaraz. [Liburua, linean]. [Kontsulta:2023-10-14]. Eskuragarri, hemen:

- <https://elearning1.hezkuntza.net/900006/mod/resource/view.php?id=2720>

Edatzeta Ikastetxea. Oinarrizko jarduera plana/ Hizkuntza indartzeko plana Oinarrizko Hezkuntzan. Helburu zehatzak A0 [Hezkuntzako dokumentua, linean]. [Kontsulta: 2023-10-16]. Eskuragarri, hemen:

- <https://docs.google.com/document/d/1dffpkx-BuGEAaMFHDvqSF-A9th25y0wp/edit#heading=h.h3fzcy4zs3jw>

Eusko Jaurlaritzak. Oinarrizko jarduera plana/ Hizkuntza indartzeko plana Oinarrizko Hezkuntzan. Helburu zehatzak A1 [Hezkuntzako dokumentua, linean]. [Kontsulta: 2023-10-16]. Eskuragarri, hemen:

- <https://docs.google.com/document/d/16TRf0K9F1E9Cjn02-LRh4bdUSYycaTve/edit>

EUSLE. Programazio didaktikoan kontuan hartzeko orientabideak eta proposamen didaktikoak. Ebaluazio-adierazleak [Artikulua, linean] [Kontsulta:2023-10-16]. Eskuragarri, hemen:

- <https://drive.google.com/file/d/1j2u-pJipHh7ElitDkYVqJBUKNCQ-kYQD/view>

Hitziki [Hizkuntza jolasak, linean] [Kontsulta: 2023-11-7]Eskuragarri, hemen:

- <https://hitziki.com/>

ARGAZKIEN ESTEKAK

Orri nagusiko argazkia:

- <https://unsplash.com/es/s/fotos/ESTUDIANTES-VASCOS>

Unitate bakoitzeko argazkiak:

1. PERTSONAK EZAGUTZEN.

1.1 Kaixo! Nor zara zu?

Agurrak:

- [Agurrak 1](#), [Agurrak 2](#), [Agurrak 3](#), [Agurrak 4](#), [Agurrak 5](#), [Agurrak 6](#)

1.2 Nongoa zara?

Nongoa:

- [Nongoa](#), [Manuela](#), [Iker](#)

1.3 Non bizi zara?

- [Mohamed](#), [Macarena](#)

1.4 Zenbat urte dituzu?

- [Zenbat urte dituzu?](#), [Maia naiz](#)
- <http://hitziki.com/juegos/esanbaki/>

1.5 Nolakoa naiz?

- [fitxa](#), [handia](#), [txikia](#), [polita](#), [itsusia](#), [argala](#), [luzea](#), [laburra](#), [biboteduna](#), [bizarduna](#), [betaurrekoduna](#), [deskribatu 1](#), [deskribatu 2](#), [deskribatu 3](#), [deskribatu 4](#), [deskribatu lagun bat](#)
- [mikroa](#)

2. IKASTETXEAN

2.1 Ikastetxea ezagutzen

- [arbela](#), [arkatza](#), [kutxatilik](#), [aulkia](#), [boligrafoa](#), [errotuladore](#), [erregela](#), [borragoma](#), [grapagailua](#), [artaziak](#), [karpeta](#), [koaderno](#), [leihoa](#), [mahaia](#), [ordenagailua](#), [zakarrontzia](#), [margoak](#), [zorrozkailua](#)
- [arkatz luzea](#), [koaderno luzea](#), [arbel luzea](#), [liburu zaharra](#), [aulki txikia](#), [errotuladore gorria](#), [leiho zuriak](#), [emakume lodiak](#), [margo meheak](#), [ordenagailu zaharrak](#), [ume txikiak](#), [zakarrontzi berriak](#), [erregela laburra](#), [zorrozkailu grisak](#), [mahai horiak](#), [ate arrosa](#).

Eskolako lekuak:

- [jolaslekua / patioa](#), [komuna](#), [gimnasioa](#), [liburutegia](#), [ikaskela](#), [musika-gela](#), [jantokia](#), [informatika-gela](#), [eskailerak](#), [igogailua](#), [korridoreak](#), [atezaintza](#)

2.2 Non dago?

Non dago?

- [hemen hor han](#), [ikaskela](#), [umea gizon artean](#), [artean](#), [ezkerrean](#), [bidearen eskuinean](#), [bidearen ezkerrean](#).

2.3 Jolastokian jolasten

Jolastokian jolasten gara:

- [informatika-gela](#), [ikasgela](#)

3. NAHIAK ETA BEHARRAK

3.1 Nahiak eta beharrak:

- [umea ura edaten](#), [janaria behar du](#), [giltza ingelesa](#), [mekanikoa](#), [llargia nahi du](#), [Lagunak behar ditu](#), [Goxokiak nahi dituzte](#), [Ura behar du](#), [Pizza nahi dute](#),

Nahi dut / Nahi ditut:

- [opariak](#), [ogitartekoa](#), [baso bete ur](#),

Ez dut nahi / Ez ditut nahi:

- [arraina](#), [berokia](#), [olibak](#)

Zer behar duzu?

- [arkatza](#), [idazlana](#), [iturria](#), [ur txorrota](#), [korrika egiteko](#), [zapatilak](#), [margotzeko](#), [margoak](#), [esertzeko](#), [aulkia](#), [irakurtzeko](#), [betaurrekoak](#)

Zer ez duzu behar?

- [esnatzeko](#), [iratzargailua](#), [orrazteko](#), [orrazia](#), [ondo pasatzeko](#), [sakelakoa](#)

Utziko didazu...?

- [kalkulagailua](#), [ordenagailua](#)

Zer nahi duzu zure urtebetetzean?

- [bizikleta](#), [erlojua](#), [liburuak](#), [motxila](#), [jostailuak](#), [zapatilak](#), [jertsea](#), [txakurkumea](#), [kainabera](#)

Zer behar duzu hori egiteko?

- [Kirol-arropa](#), [haria eta orratza](#), [kanabera](#), [sukaldeko tresnak](#), [pintzela eta margoak](#), [mailua](#)

3.2 Zer gustatzen zaizu?

Jakiak

- [Ogia](#), [okela](#), [arrautzak](#), [esnea](#), [madariak](#), [marrubiak](#), [laranjak](#), [sagarrak](#), [aza](#), [azalorea](#), [txitxirioak](#), [arraina](#), [indabak](#), [dillistak](#), [uraza](#), [patatak](#), [porruak](#), [artoa](#), [arroza](#), [gereziak](#)

Gustatzen zait / Ez zait gustatzen

- [bananak](#), [arrautzak](#), [intxaurreak](#),

Zein da zure arlorik gustukoena?

- [kalkulagailua](#), [Euskara](#), [Biologia](#),

Zein da zure kirolrik gustukoena?

- [txirrindularitza](#), [futbola](#), [igeriketa](#), [esku-pilota](#),
- [esnekiak](#), [proteinak](#), [lekaleak](#), [barazkiak](#), [fruta](#), [ogia](#), [olioa](#)

Errezetak

- [Limoizko bizkotxoa](#), [chef](#)

4. ZER MODUZ?

4.1 Zer moduz zaude?

Zer moduz?

- [zer moduz](#), [termometroa](#)

Buruko atalak:

- [Burua](#), [begia](#), [belarria](#), [aurpegia](#), [ahoa](#), [ezpainak](#), [bekokia](#), [kokots](#), [hortzak](#), [sudurra](#), [masaila](#), [ilea](#), [betazala](#), [bekainak](#), [betileak](#), [lepoa](#).

Gorputz-atalak:

- [sorbaldia](#), [bularra](#), [bizkarra](#), [besoa](#), [ukondoa](#), [eskumuturra](#), [eskua](#), [atzamarrak](#), [sabela](#), [gerria](#), [ipurdia](#), [alua](#), [zakila](#), [hanka](#), [oina](#), [orkatila](#), [orpoa](#), [behatzak](#), [gorputza](#)

Iratik marranta dauka:

- [Doministikuka](#), [eztulka](#), [gaixorik](#)

4.2 Nola zaude?

- [Pozik](#), [triste](#), [gaixorik](#), [nekatuta](#), [aspertuta](#), [haserre](#), [osasuntsu](#).

Nola nago ni?

- [pozik](#), [nekatuta](#), [aspertuta](#), [haserre](#).

Idatzi sentimendua:

- [pozik](#), [haserre](#), [triste](#), [gaixorik](#), [beldurtuta](#), [nekatuta](#), [osasuntsu](#), [aspertuta](#).

4.3 Zertan ari zara?

- [Irakurtzen](#), [margotzen](#), [idazten](#), [jolasten](#), [edaten](#), [jaten](#), [hitz egiten](#).

Zertan ari naiz?

- [Irakurtzen](#), [janzten](#), [abesten](#).

Nola zaude?

- [belauniko](#), [zutik](#), [eserita](#), [etzanda](#).
- [Ainhoa eta Jai](#)

4.4 Zergatik?

- [Umea pozik dago bere urtebetetzea delako](#)

Iratiren egunerokoa:

- [Egunerokoan idazten](#)

ENTZUNGAIAK

1. PERTSONAK EZAGUTZEN.

Kaixo! Nor zara zu?

- Kaixo! Nor zara zu?
- Ni Amanda naiz. Eta zu?
- Ni Irati naiz.
- Kaixo, Irati!

Nongoa zara?

- Kaixo, zein da zure izena?
- Nire izena Ander da. Eta zurea?
- Ni Jon naiz.
- Kaixo, Jon. Nongoa zara?
- Ni Erandiokoa naiz. Eta zu?
- Ni Urdulizekoa naiz.

Nolakoa naiz?

Nolakoa da Mikel?

Mikel gaztea da: 22 urte ditu. Gizona da. Mikel handia eta altua da. Ile luzea dauka, betaurrekoak eta bibotea. Mikel itsusia da.

2. IKASTETXEAN

Non dago?

Ikasgela

Ikasgelan, arbel handia dago. Arbela berdea da. Arbelaren aurrean, mahaiak eta aulkiak daude. Mahaiak eta aulkiak zuriak dira. Ezkerrean, leihoak daude. Leihoen azpian paperontzia dago eta paperontziaren ondoan zakarrontzia dago. Paperontzia urdina da eta zakarrontzia grisa. Eskuinean atea dago. Arbelaren eskuinean irakaslearen mahai dago, eta mahai gainean margoak daude. Kutxatilak mahaien eta aulkien atzean daude.

3. NAHIAK ETA BEHARRAK

Zer gustatzen zaizu?

Arrautzak ogi-habian

Lehenengo, tipula, piperra, tomateak eta txorizoa txikitu. Gero, txorizoa frijitu eta gorde. Ondoren, tipula eta piperra frijitu eta goritu. Gehitu tomatea eta dena batera frijitu. Gero, banatu lau zatitan. Ondoren, egin habiak ogiekin. Bitartean, jarri labea martxan 200 gradutan. Azkenik, jarri frijitutakoak ogi barruan, eta, horien gainean, arrautza bana. Sartu labera, arrautza eginda egon arte (10 minutu, gutxi gorabehera). Eta jateko prest!

4. ZER MODUZ?

Zergatik?

Iratiren egunerokoa

Gaur, astelehena da, urtarrilaren 20a. Gaur, oso pozik nago nire urtebetetzea delako! Goizean, ikastetxean egon naiz. Gero, familiarekin etxean bazkaldu dut nire janari gustukoena: okela, patata frijituak eta marrubiak.

Orain, nire etxean nago. Prestatzen ari naiz, arratsaldean lagunekin zinemara joango naizelako. Wonka ikusiko dugu, pelikula hori asko gustatzen zaidalako.

Hau poza!

LAN HONETARAKO ESTEKA

<https://sites.google.com/view/hipiaixerrota/orri-nagusia>